**GR 123.1**

# ETAPA 11. Sahiesbidea / variante

## LAGA – LAIDA 3,2 KM

**Desnibela-desnivel** + 90m / - 109m



GR 123®

# BIZKAIKO BIRA

OINEZ
SENDERISMO
HIKING

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA



**Topogida -** Topoguía

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

GR 123
**BIZKAIKO BIRA** OINEZ SENDERISMO HIKING
LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA



# GR 123.1

**11. ETAPA Ispaster-Laida / Sahiesbidea-variante | 3,2 Km / 50' h**

**Desnibela-desnivel** + 90m / - 109m







## MIDE datuak / datos MIDE

| | Ingurunea<br>*Medio* | Ibilbidea<br>*Itinerario* | Desplazamendua<br>*Desplazamiento* | Ahalegina<br>*Esfuerzo* | MIDE ordutegia<br>*Horario MIDE* |
|---|---|---|---|---|---|
| 11. ETAPA | 1 | 1 | 1 | 1 | 50' |
| | Arrisku faktore bat baino gehiago daude<br>Hay mas de un factor de riesgo | Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak<br>Sendas o señalización que indica la continuidad | Zaldibideko ibilaldia<br>Marcha por caminos de herradura | 3 eta 6 ordu arteko ibilaldia geldítu gabe<br>De 3 a 6 horas de marcha efectiva | 112 SOS DEIAK |

## Ikurrak - Iconos - Icons

- Zu hemen zaude / Ud, está aquí / You are here
- Autoz iristeko puntua / Acceso con vehículo / Vehicle access
- Baseliza / Ermita / Hermitage
- Aterpea / Refugio / Refuge
- Ondare arkeologikoa / Patrimonio arqueológico / Archeology Heritage
- Atsedenlekua / Área recreativa / Recreational área
- Ikuspegi panoramikoa / Vista panorámica / Panoramic view
- Iturria / Fuente / Source
- Hondartza / Playa / Beach
- Koba / Cueva / Cave
- Ondare monumentala / Patrimonio monumental / Monumental Heritage
- Megalitoa / Megalito / Megalith

**Web Euskera**

**Web Castellano**

**Track**

EU

# Hasiera

Ispaster herria eta Laida hondartza lotzen dituen GR123ko 11. etapa hau jatorrizko trazaduraren saihesbide batetik egin daiteke.

Ibarrangelu herrira iritsitakoan, bi aukera ditugu. Lehenengoan, Lagako hondartzatik Akorda auzorantz jarraituko dugu, eta Atxarreko San Pedro ermita ederrera igo ondoren, Laidara iritsiko gara.

Bigarren aukera, agian errezagoa da, baina baita ikusgarriagoa ere, Urdaibaiko Erreserbako bi hondartza paregabe batuko ditugulako, itsasertzetik doan oinezkoentzako bidezidor eroso batetik: Laga eta Laida hain zuzen ere.

Hareatza biak Ibarrangeluko udalerrikoak dira; nahiz eta batetik bestera 4 km-ra baino ez egon eta edertasun aparta eduki, bakoitza ezberdina eta berezia da.

ES

# Inicio

La etapa 11 de la GR123, que une la localidad de Ispaster con la playa de Laida, se puede realizar por una variante a su trazado original.

Una vez hemos accedido a la localidad de Ibarrangelu, tenemos dos opciones. En la primera continuamos desde la playa de Laga hacia el barrio de Akorda, para llegar a Laida, después de subir hasta la imponente ermita de San Pedro de Atxarre.

La segunda opción es menos exigente pero igualmente espectacular, ya que enlaza las dos playas más espléndidas de la Reserva de Urdaibai, Laga y Laida, por un cómodo sendero peatonal que recorre la orilla del mar.

Ambos arenales pertenecen al municipio de Ibarrangelu, y aunque apenas les separan 4 kms y comparten una excepcional belleza, cada uno es diferente y singular.



GR 123®
BIZKAIKO BIRA
OINEZ SENDERISMO HIKING
LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA

B

A

R R

A



KM - 0

# IBARRANGELUko San Andres



EU

Ibarrangeluk baliabide natural garrantzitsuak dauzka: Laida eta Laga hondartzak edo Atxarreko San Pedro esaterako, baina baita arkitektura-ondare handia ere, hala nola San Andres eliza. Monumentu hau, euskal geografian parekorik ez duen benetako artelan bat dugu; "Euskal Kapera Sixtinoa" izenez bataiatua izan da, bere egur polikromatuetan eraikitako gangengatik.

ES

Ibarrangelu acoge importantes recursos naturales, como las playas de Laida y Laga o San Pedro de Atxarre, pero también un gran patrimonio histórico y arquitectónico: por ejemplo, la iglesia de San Andrés. Este monumento es una auténtica obra de arte sin igual en la geografía vasca, bautizada como "La Capilla Sixtina Vasca" por sus bóvedas construidas en maderas policromadas.

KM – 0

# Laga ”




EU

Duna-hondartza ederra da, basatia, euskal kostaldeko itsaslabar bikainenetako baten ondoan: Ogoño lurmutur ikaragarriaren babesean, alegia. Ogoño izeneko mendigunea bi gailurrek osatzen dute. Lehenari Atxurkulu (308 m) deritzo; itsasoaren gainera zuzenean jausten den puntari, berriz, Talaia (276 m) deitzen zaio.

Hareatza isolatu honek ia 600 metroko luzera du, eta olatu-egunetan natura basati eta ederra erakusten du. Surflari asko hurreratzen da Lagara kirol hau egitera, eta surfean hasteko eskola bat ere badago.

Gure bideari jarraitzeko, Lagatik Laidara eramango gaituen BI-3234 errepidearen paraleloan doan bidegorriarekin bat egin besterik ez dugu. Lehenik aldapa gora leun batek Antzora auzo txikiraino eramango gaitu , eta handik aurrera aldapan behera Laidaraino joango gara.

Ibilbide osoan ikuspegi panoramiko zabal eta ederrak izango ditugu; Urdaibaiko itsasadarra, Mundaka, Bermeo eta Matxitxako lurmuturra aurrez aurre aurkituko bait dugu.

ES

Es una hermosa playa dunar, salvaje, y al abrigo del imponente cabo Ogoño, que forma uno de los acantilados más espectaculares de la costa vasca. El macizo denominado cabo de Ogoño lo conforman en realidad dos cumbres. Una responde al topónimo de Atxurkulu (308 m), mientras que la punta que cae directamente sobre el mar se denomina Talaia (276 m).
Este aislado arenal tiene una longitud de casi 600 m, y en días de oleaje muestra una naturaleza feroz y hermosa. Muchos surfistas acuden a Laga a practicar este deporte, y también hay una escuela para iniciarse en el surf.

Para seguir nuestro camino, no tenemos más que unirnos al bidegorri que discurre paralelo a la carretera BI-3234 que nos llevará desde Laga hasta Laida. Primero una ligera cuesta arriba nos llevara hasta el pequeño barrio de Antzora, y a partir de ahí bajamos  hasta Laida.

A lo largo de todo el recorrido podremos disfrutar de amplias y bellas vistas panorámicas, ya que nos encontraremos frente a frente con la ría de Urdaibai, Mundaka, Bermeo y el Cabo Matxitxako.

**KM - 3**

# LAIDA

EU

Ia ahaleginik egin gabe eta paisaiaz gozatuz helduko gara Laidara. Mundakako itsasadarreko hondartzarik handiena da hau, eguzkiaz, kirolaz edo gastronomiaz gozatzeko zerbitzu guztiekin.

Baina oso hondartza kamaleonikoa da, bere hedadura marearen arabera aldatzen baita. Marea handiko orduetan metro gutxikoa da, baina jaisterakoan, tamaina laukoiztu egiten da, ia itsasadarraren beste aldean dauden hondartzekin bat egin arte. Itsasbehera dagoenean, ibiltzeko gonbita egiten duten forma bitxi-harrigarriak sortzen dira.

ES

Casi sin esfuerzo y disfrutando de la vista llegaremos a Laida. Esta es la playa más grande de la ría de Mundaka, con todos los servicios para disfrutar de una jornada relajada de sol, deporte o gastronomía.

Pero es una playa muy camaleónica, ya que su aspecto cambia según la marea. En las horas de marea alta su extensión es de pocos metros, pero cuando las aguas bajan, su tamaño suele cuadruplicarse, casi hasta conectarse con las playas que se encuentran al otro lado de la ría. En las horas de bajamar se crean formas caprichosas que invitan a caminar.









GR 123®
**BIZKAIKO BIRA**
OINEZ
SENDERISMO
HIKING
LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA

**Bultzatzailea:** Bizkaiko Foru Aldundia

**Promotor:** Diputación Foral de Bizkaia

**Tfn:** 94 4067700

Bizkaiko
Mendizale
Federazioa

ingenieriaSendo s.l.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral